

Euskal Autonomia
Erkidegoan, eta hor
bakarrik, landu eta
banatzen diren produktu
tradizionalek, euskara
hutsean eraman dezakete
etiketa.

ELIKAGAIAK ETIKETATZEA

1334/1999 Errege-dekretua

- 1 Iraungitze-data jartzea derrigorrezkoa da mikrobiologikoki oso galkorrak diren produktuetan; gainerako kasuetan nahikoa da gutxieneko iraupen-data adieraztea, ondoko eran "ahal bada, data hau baino lehenago kontsumitu: ..." (Data horretatik aurrera produktuak kalitatea galdu du, baina bere kontsumoa egokia izan daiteke).
- 2 Derrigorrezkoa da 1/2^otik gorako edari alkoholdunetan.
- 3 Beren pisuaren arabera, beheranzko ordenan adieraziko dira. Osagaien kalitatea adierazi beharko da, baldin eta.
 - Salmenta-izenean agertzen bada edo beroni loturik agertzen bada.
 - Etiketan hitzen, irudien edo irudikapen grafikoen bidez nabarmentzen bada.
 - Elikagai bat definitzeko eta bereitzeko ezinbestekoa bada.
- 4 Kategoria adierazi behar da (koloratzailea, kontserbatzailea, antioxidatzailea...), eta ondoren bere izen espezifiko edo identifikazio-zenbakia.
- 5 Enpresa erantzulearen izena eta helbidea adierazi behar da.
- 6 Bere jatorria adierazi behar da.
- 7 Lotea adieraztea ez da beharrezkoa izango, baldin eta iraugitze-datan edo gutxieneko iraupen-datan hila eta eguna adierazten dira.



MELOKOTOI-MERMELADA

650 gr.

Ahal bada, data hau baino lehenago
kontsumitu: ikus tapan



Osagaiak: melokotoiak (345 gr.), azukrea,
glukosa-xarabea.

Loditzailea: pektina eta E-410;
azidotzailea: azido zitrikoa;
kontserbatzailea: E-202.

Ireki ondoren, hozkailuan kontserbatu.

Goxomer, S.A.
Avda. Del Carmen, 10
Durango (Bizkaia)
ESPAINIA

Jatorria: ITALIA

Salgaiaren izena

Kantitate garbia

✓ Gutxieneko iraupen-data edo iraugintze data

✗ (alkohol-graduak, hala badagokio)

ETIKETA OROKORRA

✗ Osagai zerrenda

✗ Gehigarriak

Kontserbatu eta erabiltzeko jarraibideak

✗ Enpresa erantzulearen izena eta helbidea

✗ Jatorria

✗ Fabrikazio lotea (ikus tapan)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA
TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO



GENETIKOKI ERALDATUTAKO ORGANISMOAK

Europako Batasunean komertzializatzeko baimenduta dauden mota honetako elikagaien artean soia, artoa edo patata dira. Etiketak izaera hori argi eta garbi utzi behar du genetikoki eraldatutako organismoaren presentzia %0,9 baino gehiagokoa bada:

- Produktua elikagaia bera denean, etiketan argi eta garbi adierazi beharko da mota horretakoa dela. Adibidez: "genetikoki eraldatutako artoa".
- Osagai bat baino gehiago duten produktuak:
 - Genetikoki eraldatutako organismoa osagaietako bat baldin bada, hori adierazi egin beharko da.
 - Osagai bat genetikoki eraldatutako organismoarekin fabrikatua izan baldin bada, bere izenaren ondoren adierazi beharko da, parentesi artean. Bestela, zerrendaren azpian, leku nabarmen batean, dagokion osagai horri izartxo bat jarrita. Adibidea: "Soia-lezitina (genetikoki eraldatutako solaz egina)".
 - Osagaiari kategoria baten izena ematen baldin bazaio ("irina" "ogi birrindua" "landare-koipea") ondoko aipamenarekin osatuko da: "genetikoki eraldatutako [organismoaren izena] egina".
 - Sueltoko produktuak badira edo ontzikiaren gainazala 10 cm² baino gutxiagokoa bada informazio hori produktuaren ingurune hurbilean, era ikusgarri eta iraunkorrean, agertu behar da.



900 600 500

www.kontsumo.net

